



Javier Lacunza hizkuntz-eskolakoz zuzendariak -erdian- eta beste hainbat ordezkari eman zuten egitarauaren berri. I.F.M.

Egitarau berezia Hizkuntzen Egun Europarra ospatzeko

Hizkuntzak Lacunza hizkuntz-eskolak hitzaldiz, mahainguruz, tailerrez eta doako eskolez hornituriko egitarau aberatsa prestatu du Hizkuntzen Egun Europarra ospatzeko.

2016rako ideiak hartzeko hausnarketak

Kultura 2016an Europako Kulturaren Hiriburu izateko hautagaitzari buruzko jardunaldiak izango dira.

I.L.

Donostia guztiz murgilduta dago 2016 Kulturaren Europar Hiriburu izendapena lortzeko Hautagaitzaren kultura-proiektuaren sustapen eta ikerketa prozesuan. Helburu hori lortzeko, bulegoa hainbat kultura, jai, kirol eta komunikazio ekitaldi egiten ari da, herritarrek finkaturako helburuekin nahasteko.

Irailaren 29 eta 30ean, 2016ko Donostiaren Hautagaitzari buruzko lehen jardunaldiak egingo dituzte Victoria Eugenia Antzokian. Lau txosten eta hamaika komunikazio aurkeztuko dira, hautagaitzaren kultur proiektuak izan ditzakeen edukiez ideiak batu ahal izateko.

Hautagaitzaren bulegoko arduraduna den Edorta Azpiak azaldu zuenez, «jardunaldien helburu nagusia ideiak jasotzea da. Horretarako disziplina ezberdinetan adituak diren lagunen iritziak eta esperientziak bildu nahi ditugu jardunaldiotan.

Txostengileak eta eztabaidak Lau adituk gai ezberdinei buruzko hitzaldiak aurkeztu dituzte eta hi-

ria kulturaren arloan izan dezakeen potentzialitateaz arituko dira. Astelehenean Kepa Korta, Plan Estrategikoaren Bulegoko zuzendariak eta Daniel Innerarity pentsalariak aurkeztuko dituzte beren txostenak, eta asteartean Santi Erasoren eta Josep Ramonedaren txanda izango da.

Arratsaldeetan mahai inguruen ordua izango da bi egun hoietan zehar. Hiriko hainbat esparrutan esperientzia duten pertsonen ideiak eta proposamenak hartzeko garaia izango da.

Helburua irabaztea da

Odon Elorzar azaldu zuenez, «hiriari pauso izugarria emango luke hautagaitza lortuko balu, beraz, irabazi egin behar dugu». Astelehenean Bilbok sinatuko du Donostiaren aldeko atxekimendua.

Euskal Jaietako azken txanpa

Jaiek Azken asteburua izango dute Euskal Jaiek, eta ekitaldiz gainezka datorren egitaraua izango da bi egun hauetan.

ERREDAKZIOA

Azken txanpa dute Euskal Jaiek eta aurten ere, ekitaldi mordo dago aurreikusita egitarauan.

Gaur goizeko 10:30ean hasiko da Donostiako Nekazaritza Ekologikoaren Azoka. Biolur eta Behe-mendi elkarteek antolatutako azoka da eta bertako produktuak erosteko aukera izango da Konstituzio Plazan 15:00ak arte.

Kirolak, egitarauaren zati garrantzitsua

Gaur eta bihar kirola egin edo ikusi nahi dutenek aukera ugari dituzte. Goizean Urgulleko Krosa izango da

IGONE FDEZ, MARIEZKURRENA

Irailaren 26an ospatuko da Europa osoan Hizkuntzen Eguna eta Lacunza hizkuntz-eskolak «aurrerakirik gabeko jardunaldia» antolatu du data hau goraiatzeko; halaxe azaldu zuen atzo Javier Lacunza zuzendariak. «Hizkuntza berriak ikasteak gizakiok aberasgaituena ospatu nahi duguzioen- eta 8 egunez espazio eleanitz eta bizia eratu nahi duguz».

Eskolak Bartolome kaleko 10. zenbakian duen egoitza berria izango da espazio hori, bertan jorratuko baitituzte haibat hitzaldi, mahainguru, tailer, ikuskizun eta doako eskola. Ateak zabal-zabaldi egongo dira parte hartu nahi duen ororentzat.

Letamendia surflaria, ingelesez Orotara ingelesezko hiru hitzaldi izango dira entzungai. Gazteen ikuspuntutik erakargarriena Adur Letamendia surflari zarautzarrak eskainiko duena da -hilak 24, 19:00tan-; ingelesa menderatzeak bere jardunean duen garrantzia arituko da, besteak beste.

Ingelesezko gainerako bi hitzaldiak hizkuntza hau irakasten duten horiek aholkatzera bidera-

tuko dituzte. P. Norris -hilak 20, 11:00tan- eta K. Bilsborough -hilak 27, 11:00tan- mintzatuko dira.

Haurrak protagonista

Irailaren 23an haurrak izango dira protagonista, Lacunzakoek ipuin kontalari bat eta txontxongiloak eramango baitituzte egoitza berri- ra Ozeko Aztiaren istorioa kontatuz. Zuzeneko musika ere izango da entzungai. Dena 18:30ean.

Frantsesa eta txinera hizpide

Hilaren 22an eta arratsaldeko 18:30ean Jean-François Revel aditua frantsesaren irakaskuntzaz arituko zaie irakasleei. Eta, aldez, hilaren 25ean -18:30ean- Txina, bere kultura, bere ekonomia eta bere hizkuntza izango dira hizpide Manuel Sanchez Monasterioren gidaritzapean.

Eskolak doan

Irailaren 26a bera izango da egun handia. Bartolome kaleko egoitza 17 hizkuntzatik gorakasteke parada -doan- izango baita goizeko 9:30atik hasi eta 19:00ak arte; tartean tibetera, arabiera eta hindia. Izena aldeztu aurretik eman beharra dago.

eta baita Kontxako Badiako Igerialdia ere. Arratsaldean, Atano III. frontoian Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol txapelketa jokatu da.

Dragoia, erraldoi eta buruhandiak

Urtero bezala, 17:00etan Urgulle- tik jaitsiko den dragoiak, eta hare-

kin erraldoi eta buruhandiek, kalejira egingo du Parte Zaharretik.

Gaur gauean Sagarroi taldeak emango du kontzertua konstituzio plazan. Bihar, sokamuturra goizean, sardina jatea Sarriegi plazan eta trikitilarien kontzentrazioa izango dira, besteak beste.

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZak

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritza eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 25a baino lehen: donostia@irutxulokohitza.info edo deitu 943-46 72 36 telefono zenbakira

EUSKAL HERRIA

Basatia

NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

EUSKAL HERRIKO NATURAREN GIDALIBURU NAGUSIA

6 liburuki

Itsasertzak, Basoak eta ibarrak, Labanak eta haizarteak, Tontor nagusiak, Ibaiek eta ur-jauziak eta Euskal Herriko Atlasak

berria

BARCELONA GIPUZKOA

kutxa